

ARNAS-APARATUA 2

1. Lotu proposatutako definizio bakoitza arnas aparatuko atal egokiarekin.
 - a. Biriken oinarriaren euskarri den muskulua.
 - b. Mintzeko tolesturak, soinuak sortzen dituztenak airea tartetik igarotzean bibratuta.
 - c. Birikak inguratzen eta babesten dituen mintza.
 - d. Gainazala C itxurako kartilagozko eraztunez sendotuta duen arnasbidea.
 - e. Bronkioloen amaieran dauden globo itxurako zakuak.
 - f. Irensketa izaten denean, glotisa ixten duen tolestura kartilaginosoa.
 - g. Sudur-hobietako arnas-mukosa, airea berotzeaz, hezetzeaz eta garbitzeaz arduratzen dena.
 - h. Trakearen adarkadura diren bi hodi.

TRAKEA

BRONKIOAK

DIAFRAGMA


AHOTS KORDAK

PLEURA

ALBEOLOAK

PITUITARIA GORRIA

EPIGLOTISA



2. Jarri izenak hurrengo laukietan.

3. Adierazi zerekin dauden erlazionatuta hauek, arnasgorarekin ala arnasbeherarekin.
- a. Saihetsarteko muskuluak erlaxatzea.
 - b. Biriketan airea sartzea.
 - c. Diafragma igotzea.
 - d. Birikak konprimatzea.
 - e. Diafragma uzurtzea.
 - f. Biriketatik airea irtetea.
 - g. Saihetsarteko muskuluak uzurtzea.
 - h. kaxa torazikoaren bolumena txikitzea.
 - i. Diafragma jeistea.
4. Ordenatu birika aireztapenean izaten diren gertaeren segida hau, saihetsarteko muskuluak eta diafragma uzurtzen direnetik hasita. Zenbakiak jarri.
- a. Saihetsarteko muskuluak eta diafragma uzurtzea.
 - b. Saihetsarteko muskuluak eta diafragma erlaxatzea.
 - c. Kaxa torazikoaren bolumena txikitzea.
 - d. Kaxa torazikoaren bolumena handitzea.
 - e. Birikak hedatzea.
 - f. Albeoloetan, gasak trukitzea (CO_2/O_2).
 - g. O_2 ugariko airea biriketan sartzea.
 - h. CO_2 ugariko airea kanporatzea.